

BASES PARA EL DISEÑO DE UNA PLANIFICACIÓN LINGÜÍSTICA EN LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

0. INTRODUCCIÓN

Los Estatutos actualmente vigentes en nuestra Universidad dedican el Capítulo V del Título IV al euskera en la Universidad y recogen en su Artículo 120 la necesidad de dotarnos de “una planificación del uso del euskera en las actividades académicas”, planificación que deberá ser aprobada por el Consejo de Gobierno a propuesta de la Comisión de Planificación Lingüística.

El objetivo de este documento es plantear las bases de la referida planificación para que, tras su aprobación por el Consejo de Gobierno, sirvan de pauta para los trabajos de la Comisión de Planificación Lingüística y permitan disponer del Documento de Planificación Lingüística para su consideración final por el Consejo de Gobierno de la Universidad.

1. ANTECEDENTES

El primer Plan de Normalización realizado en nuestra Universidad data del 6 de febrero de 1995, fecha en que fue aprobado por la Junta de Gobierno. Diversas y bien conocidas circunstancias no propiciaron la ejecución de dicho Plan. En 1997, la entonces Comisión de Normalización elaboró un nuevo Plan que, aun teniendo amplio consenso en Departamentos y Centros, tampoco pudo ponerse en práctica.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN HIZKUNTZA PLANGINTZA DISEINATZEKO OINARRIAK

0. SARRERA

Gure unibertsitatean egun indarrean dauden Estatutuek IV. tituluaren V. kapitulua —Euskara unibertsitatean— eskaintzen diote euskarari, eta 120. artikuluan ezartzen dute “(...) irakaskuntza jardueretan euskara erabiltzeko plangintza (...)” baten beharra dugula, eta Gobernu Kontseiluak onetsi beharko duela plangintza hori, Hizkuntza Plangintzarako Batzordeak proposatuta.

Dokumentu honen helburua da aipatu plangintzaren oinarriak azaltzea, Gobernu Kontseiluak oinarri horiek onetsi eta gero, Hizkuntza Plangintzarako Batzordeak eredu gisa erabil dezan dokumentu hori bere lanak egin, eta Hizkuntza Plangintzarako Dokumentua egiteko. Gero Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak azken gogoeta egingo du hari buruz.

1. AURREKARIAK

Gure Unibertsitatean egin zen lehenengo Normalizazio Plana 1995eko otsailaren 6koa da, Gobernu Batzordeak egun hartan onetsi baitzuen. Aski ezagunak diren hainbat arrazoi direla medio, plan hori ez zen bete. 1997an, orduko Normalizazio Batzordeak Plan berri bat egin zuen. Plan honek sail eta ikastegien artean adostasun zabala lortu bazuen ere, ez zen abian jarri.

En 1998 se acometió un nuevo intento de Plan de Normalización, que no llegó a presentarse a aprobación de órganos de gobierno de la universidad y que, alternativamente, derivó en la adopción de una serie de medidas transitorias entre las cuales se fijaba en 18 créditos por titulación la docencia máxima en euskera. A fecha actual, dicha medida tiene una desigual aplicación en nuestras titulaciones.

Dos años más tarde, en el 2000, la Comisión de Normalización elaboró un nuevo documento que optaba por un modelo de enseñanza en euskera basado principalmente en asignaturas de libre configuración –modelo, pues, transversal- y que fijaba además un límite de enseñanzas en euskera de 18 créditos para titulaciones de Diplomatura y Carreras Técnicas de ciclo corto; de 24 para Licenciaturas y de 30 para Ingenierías de dos ciclos. Este nuevo plan, en algunas de sus partes, no ha llegado a implementarse.

En el año 2002, se conocieron los trabajos de la Comisión de Educación del Parlamento de Navarra para la promulgación de una “Ley sobre el uso del vascuence en la Enseñanzas Superior de la Comunidad Foral”, que no vio la luz. En diciembre de ese mismo año se aprobó la Ley Orgánica de Universidades (LOU), estableciéndose un periodo constituyente en las universidades y que, en nuestro caso, culminó con la aprobación de los Estatutos actualmente vigentes en mayo de 2003.

Y es precisamente en dichos Estatutos,

1998an beste ahalegin bat egin zen beste Normalizazio Plan bat egiteko, baina unibertsitateko gobernu-erakundeei aurkeztu ere ez zitzaien egin onets zezaten, eta horren ordeaz neurri iragankor batzuk onetsi ziren, eta neurri horietako batek ezarri zuen gehienez ere 18 kreditu irakasten ahalko zirela euskaraz titulazio bakoitzean. Gaur egun, neurri hori oso modu desberdinean ezartzen da gure titulazioetan.

Bi urte geroago, 2000. urtean, Normalizazio Batzordeak euskarazko irakaskuntza-eredu baten aldeko apustua egiten zuen dokumentu berri bat egin zuen. Eredu hori batez ere hautaketa libreko irakasgaietan oinarritzen zen —zeharkako eredu, beraz—, eta ziklo laburreko Diplomaturako eta Ikasketa Teknikoetako titulazioetan euskaraz gehienez ere 18 kreditu irakasten ahalko zirela ezartzen zuen; 18, Lizentziaturetan, eta 30, bi zikloko Ingeniaritzetan. Plan berri honen atal batzuk ez dira ezarri.

2002. urtean, Nafarroako Parlamentuaren Hezkuntza Batzordea “Nafarroako Foru Erkidegoko Goi Mailako Hezkuntzan euskararen erabilera arautzen duen legea” aldarrikatzeko egiten ari zen lanak ezagutu ziren. Urte bereko abenduan, Unibertsitateei buruzko Lege Organikoa (LOU) onetsi, eta unibertsitateetan aldi eratzaille bat ireki zen, guri dagokigunez 2003ko maiatzean amaitu zena egun indarrean dauden Estatutuak onetsita.

Eta, hain zuzen, Estatutu horiek, eta

y como se ha comentado, en su Artículo 120 en donde se establece la necesidad de dotarnos de “una planificación del uso del euskera en las actividades académicas”. El presente documento, pues, recoge sin ningún género de dudas, el mandato estatutario.

2. SITUACIÓN JURÍDICA

La planificación lingüística en nuestra Universidad tiene, como marcos legales de referencia, los siguientes:

- La Constitución Española, que en su Artículo 3 afirma que:
*“1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.
2 Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.
3. La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección.”*

- La Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra, que proclama en su Artículo 9 que
*“1. El castellano es la lengua oficial de Navarra.
2. El vascuence tendrá también carácter de lengua oficial en las zonas vascoparlantes de Navarra.*

goian aipatu den bezala, 120. artikuluan, ezartzen dute “(...) irakaskuntza jardueretan euskara erabiltzeko plangintza (...)” baten beharra dugula. Dokumentu honek, beraz, Estatutuek agindutakoa jasotzen du inolako zalantzarik gabe.

2. ZUZENBIDEZKO EGOERA

Honako hauek dira hizkuntza-plangintzaren erreferentziako lege-esparruak gure Unibertsitatean:

- Espainiako Konstituzioa, zeinak 3. artikuluan honako hau xedatzen baitu:
*“1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.
2 Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutoei dagozkien eran.
3. Espainiako hizkuntza mota ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.”*

- Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa, zeinak 9. artikuluan honako hau xedatzen baitu:
*“1. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan.*

Una ley foral determinará dichas zonas, regulará el uso oficial del vascuence y, en el marco de la legislación general del Estado, ordenará la enseñanza de esta lengua.”

- La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence, que regula la relación de las Administraciones Públicas con los administrados, en materia del euskera (ANEXO I)
- Decreto Foral 29/2003, de 10 de febrero, por el que se regula el uso del vascuence en las Administraciones Públicas de Navarra. (ANEXO II)
- Los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra, que dedican el Capítulo V del Título IV al euskera en la Universidad, y que recogen el compromiso de la comunidad universitaria sobre este tema. (ANEXO III)

Complementariamente, conviene tener en cuenta el reciente “Estudio sociolingüístico sobre Vascuence en Navarra 2003” realizado por el Departamento de Educación (Dirección General de Universidades y Política Lingüística) (ANEXO IV) que contiene datos sobre la competencia lingüística, uso y actitudes del y sobre el euskera en la Comunidad Foral, así como los distintos tratados y documentos internacionales que reconocen el derecho a la “identidad

Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du.”

- Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea, Administrazio Publikoek euskararen arloan administratuekin dituzten harremanak arautzen dituen (I. ERANSKINA)
- 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena. (II. ERANSKINA)
- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuak, IV. Tituluaren V. Kapitulua —Euskara unibertsitatean—, euskarari eskaintzen diotenak, eta unibertsitateko komunitateak gai honi buruz duen konpromisoa jasotzen dutenak. (III. ERANSKINA)

Goikoa osatzeko, aintzat hartzea komeni da Hezkuntza Departamentuak (Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia) berriki egindako “Euskarari buruzko Ikerketa soziolinguistikoa Nafarroan 2003” (IV. ERANSKINA). Ikerketa horrek makina bat datu ditu Foru Erkidegoan euskaraz dagoen hizkuntza gaitasunaren gainean, erabileraren gainean eta euskararen eta euskarari buruzko jarreraren gainean, bai eta gutxiengo etniko eta erlijiosoei eta hizkuntza-

cultural” respecto de minorías étnicas, religiosas y lingüísticas (p.e. el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos. ANEXO V)

3. MARCO GENERAL

El euskera es una realidad de la universidad y de la sociedad navarra, en la que se enmarca y a la que sirve la universidad. Es preciso abordar, como indican nuestros Estatutos, la planificación lingüística global atendiendo a parámetros de demanda, oportunidad y, sobre todo, de calidad desde coordenadas académicas, como corresponde a toda actividad universitaria.

El euskera es parte del patrimonio cultural navarro e instrumento de comunicación y relación. Como tal, la Universidad ha de manifestar una actitud garante, favorable y positiva de fomento y desarrollo de una lengua propia de Navarra, en coherencia con la política desarrollada por el Gobierno de Navarra en los niveles educativos previos. En efecto, cada curso académico ingresan en nuestras aulas alumnos que provienen de modelos educativos bilingües o en los que se adquieren conocimientos básicos de euskera; para dichos alumnos la Universidad debe facilitar que puedan proseguir estudios en euskera de tal manera que no sólo no pierdan la competencia lingüística adquirida en niveles inferiores sino que tengan también la oportunidad de mejorarla y, atendiendo a las necesidades, demandas reales y recursos, recibir la mejor

gutxiengoei “kultura-nortasuna” izateko eskubidea aitortzen dieten nazioarteko hainbat hitzarmen eta agiri ere (esate baterako, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna). (V. ERANSKINA)

3. ESPARRU OROKORRA

Euskara errealitate bat da unibertsitatean, baita Nafarroako gizartean ere, non unibertsitatea txertatuta baitago. Beharrezkoa da, hortaz, gure Estatutuek ezartzen duten bezala, hizkuntza plangintza orokorrari ekitea, eskaera, egokiera eta, batez ere, kalitatearen irizpideen arabera, ikuspuntu akademiko batetik hitz eginez, unibertsitatearen jarduera guztietan eskatzekoa den bezala.

Euskara Nafarroako kultura-ondarearen zati da, baita komunikatzeko eta harremanetan jartzeko tresna ere. Beraz, Unibertsitateak Nafarroako berezko hizkuntza sustatu eta garatzeko aldeko jarrera positiboa eta bermatzailea erakutsi behar du, Nafarroako Gobernuak unibertsitate baino lehenagoko hezkuntza-mailetan garatzen duenarekin bat etorriz. Izan ere, ikasturtez ikasturte, hezkuntza-eredu elebidunetatik edo eta euskararen oinarriko ezagutzak ematen diren ereduetatik datozen ikasleak etortzen dira gure ikasgeletara; Unibertsitateak erraztu behar du ikasle horiek beren ikasketak euskaraz segitu ahal izatea, beheko hezkuntza-mailetan lortu duten hizkuntza gaitasuna ez dezaten gal, eta are, hobetu ahal izan dezaten, beren bizitza profesionala aurrera eramateko beharrezkoa duten hizkuntza-prestakuntzarik onena lortuz,

preparación lingüística para el ejercicio de su vida profesional.

Por otra parte, la Universidad Pública de Navarra, aunque tiene su sede en el campus de Pamplona, atiende fundamentalmente a toda la sociedad navarra y por lo tanto debe prestar servicio de acuerdo con la realidad sociolingüística de la misma.

4. BASES PARA LA PLANIFICACIÓN

Como en toda planificación académica, los elementos a considerar son:

- a) Diagnóstico de la situación actual
- b) Objetivos
- c) Actores y acciones de la planificación
- d) Evaluación y seguimiento de las acciones

A continuación se detallan las líneas generales que deben conformar cada uno de los antedichos elementos.

a) Diagnóstico de la situación actual

Se trata en este punto de conocer la situación actual del euskera en la Universidad y, en la medida de lo posible, realizar una prospectiva sobre previsiones de futuro. A tal efecto se deben conocer y disponer de actualizaciones de datos sobre:

- Estudiantes euskaldunes matriculados en la universidad y sus niveles de conocimiento del euskera, y

betiere beharrei, eskaera errealari eta baliabidei kasu eginez.

Beste alde batetik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, nahiz eta egoitza Iruñeko campusean eduki, Nafarroako gizarte osoaren beharrak asetu behar ditu, eta beraz Nafarroako errealitate soziolingüistikoaren arabera eman behar du zerbitzua.

4. PLANGINTZAREN OINARRIAK

Edozein irakaskuntza-plangintzatan bezala, honako hauek dira aintzat hartu beharreko elementuak:

- a) Gaur egungo egoeraren diagnostikoa
- b) Helburuak
- c) Plangintzaren jarduera-egileak eta jarduerak
- d) Jardueren ebaluazioa eta jarraipena

Goian aipatutako elementu bakoitzaren ildo nagusiak aipatzen dira ondoren.

a) Gaur egungo egoeraren diagnostikoa

Euskararen egoera unibertsitatean ezagutu behar da, eta ahal den neurrian, etorkizuneko aurreikuspenei buruzko prospektiba bat egin behar da. Horretarako, datu gaurkotuak ezagutu eta eduki behar dira honako gai hauei buruz:

- Unibertsitatean matrikulatutako ikasle euskaldunak eta daukaten euskararen ezagutza-maila, eta euskara ikasten ari

relación de los que cursan estudios de aprendizaje de euskera.

- Profesorado de los Cuerpos Docentes Universitarios y contratados que conocen el euskera, nivel de conocimientos y relación de los que cursan estudios de aprendizaje de euskera.

- Experiencia docente en euskera, en distintos niveles educativos, del profesorado de nuestra Universidad así como su disponibilidad a impartir docencia en euskera.

- Investigación que se realiza en euskera y sobre el euskera.

- Personal de Administración y Servicios de nuestra Universidad que conoce el euskera y niveles de conocimiento y relación de los que cursan estudios de aprendizaje de euskera.

- Situación de la docencia actual de y en euskera en nuestra Universidad, con histórico de los últimos años para conocer su evolución.

- Relación de puestos de trabajo del PAS que requieren cualificación lingüística, su actual dotación y circuitos administrativos existentes para canalizar la atención a personas euskaldunes.

- Actividades extracadémicas sobre o en euskera que se realizan de forma consolidada desde la Universidad o desde sus asociaciones.

- Análisis de ofertas laborales que, en los últimos años, han exigido conocimientos o titulación en euskera, con objeto de conocer la necesaria cualificación lingüística de nuestros titulados para su acceso al mercado laboral.

direnen zerrenda.

- Euskaraz badakiten Unibertsitateko Irakaskidegoetako irakasleak eta kontratupekoak, ezagutza-maila, eta euskara ikasten ari direnen zerrenda.

- Gure Unibertsitateko irakasleen eskarmentua euskarazko irakaskuntzan, hainbat hezkuntza-mailatan, bai eta euskaraz irakasteko modurik duten ere.

- Euskaraz eta euskarari buruz egindako ikerketa.

- Euskaraz badakiten Unibertsitateko Administrazio eta Zerbitzuetako langileak, ezagutza-mailak, eta euskara ikasten ari direnen zerrenda.

- Euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren egoera gure unibertsitatean, azken urteetako datuekin, bere bilakaera ezagutzeko.

- AZLko lanpostuen zerrenda, gaitasun lingüistikoa eskatzen dutenena, gaurko dotazioa eta euskaldunei arreta euskaraz emateko dauden administrazio zirkuituak.

- Unibertsitatetik edo bere elkarteetatik modu iraunkorrean bultzatzen diren euskarazko eta euskarari buruzko eskolatik kanpoko jarduerak.

- Azken urteetan euskarazko ezagutza edo titulazioa eskatzen zuten lan-eskaintzen azterketa, ezagutu ahal izateko gure titulatuak beharko luketen gaitasun linguistikoa lan merkatuan sartzeko.

- Prospectiva de ingreso de estudiantes euskaldunes en nuestra Universidad, en los próximos años, a la luz de datos cuantitativos de estudiantes de otros niveles de enseñanza que cursan estudios en euskera –en sus distintas modalidades y centros educativos-.

El conocimiento de estos datos permitirá el diseño de una planificación que tenga en cuenta la realidad del euskera en la Universidad Pública de Navarra a la vez que permitirá estimar previsiones sobre futuras demandas.

b) Objetivos

Los objetivos de la planificación lingüística están determinados con precisión en nuestra norma estatutaria, que recoge los derechos en materia lingüística de los miembros de la comunidad universitaria, aspectos generales sobre el uso del euskera en la Administración y las acciones concretas que debe emprender la Universidad en esta materia.

Así el Artículo 119.1c) de los Estatutos establece como derecho de todos los miembros de la Comunidad Universitaria *“recibir y ofrecer enseñanzas, así como realizar trabajos, exámenes o pruebas en euskera, en aquellas asignaturas que la Universidad ofrezca en esa lengua, en los términos que la Ley establezca.”*

El Artículo 120.2 de los Estatutos determina que *“La Universidad atenderá*

- Datozen urteetan gure unibertsitatean sartuko diren ikasle euskaldunen kopuruari buruzko aurreikuspena, ikasketak euskaraz egiten ari diren —beren modalitateeta ikastetxe desberdinetan— beste irakaskuntza-maila batzuetako ikasleei buruzko datu kuantitatiboen arabera.

Datu hauek ezagutzen badira, euskararen egoera Nafarroako Unibertsitate Publikoan aintzat hartuko duen plangintza egin, eta, aldi berean, etorkizuneko eskarien gaineko aurreikuspenen estimazioak egin ahalko dira.

b) Helburuak

Hizkuntza-plangintzaren helburuak zehatz finkatuta daude gure estatutuetako arauan. Estatutuek unibertsitateko komunitateko kideek hizkuntza-arloan dituzten eskubideak aipatzen dituzte, Administrazioan euskararen erabilerari buruzko alderdi orokorrak, eta unibertsitateak arlo honetan egin behar dituen jardura zehatzak.

Hala, Estatutuetako 119.1c) artikulua xedatzen du Unibertsitateko Komunitateko kide guztien eskubidea dela *“Unibertsitateak euskaraz eskaintzen dituen irakasgaietan irakaskuntzak euskaraz jaso eta eskaintzea, bai eta lanak, azterketak eta probak euskaraz egitea ere, Legeak ezartzen duen moduan.”*

Estatutuetako 120.2 artikulua xedatzen du *“Unibertsitatea euskarazko*

el desarrollo de actividades académicas en euskera en función de la demanda y de las necesidades sociales contrastadas”.

“La Universidad desarrollará una política de formación y contratación de profesorado, y de personal de administración y servicios para la implantación de docencia en euskera y para garantizar el uso de dicha lengua en las relaciones administrativas y laborales, en el marco que la Ley establezca”, afirma el Artículo 121

El Artículo 122 recoge en su tenor literal que “La Universidad procurará la utilización del castellano y el euskera en la documentación administrativa de uso interno y externo, y garantizará el uso de ambas lenguas en los impresos, membretes de papelería, actuaciones relativas a imagen y rotulación interior y exterior, así como en la publicidad y promoción en el ámbito lingüístico del euskera, y en las relaciones institucionales con las administraciones públicas ubicadas en la Comunidad Foral y con otras de dicho ámbito, de acuerdo con la normativa vigente.”

Ello no obstante, conviene resaltar los grandes objetivos generales de la planificación lingüística, en atención a los distintos colectivos que integran la Universidad.

b.1) Estudiantes

- Proporcionar la mejor cualificación

irakaskuntza jarduerak garatzeaz arduratuko da eskaintzari eta gizarteko beharrei jarraituz”.

“Irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak prestatu eta kontratatzekeo politika garatuko du Unibertsitateak, irakaskuntza euskaraz ezartzeko eta administrazio eta lan harremanetan euskararen erabilera bermatzeko, Legeak ezarriko duen esparruan”, xedatzen du 121. artikulua

*122. artikulua hitzez hitz esaten du “Barneko eta kanpoko administrazio-dokumentazioan euskara eta gaztelania erabil daitezten saiatuko da Unibertsitatea, eta **bermatuko du** bi hizkuntzak erabiliko direla administrazio-agirietan, barne eta kanpoko irudi eta errotulaziorako jardueretan, eta euskararen alorreko publizitate eta sustapen ekintzetan, bai eta Nafarroako Foru Erkidegoan dauden administrazio publikoekin eta eremu horretako beste batzuekin dituen instituzio mailako harremanetan ere.”*

Nolanahi ere, aipatzekoak dira hizkuntza-plangintzaren helburu orokor nagusiak, Unibertsitateko taldeentzat.

b.1) Ikasleak

- Hizkuntza-gaitasun onenak ematea hala

lingüística a los estudiantes que la demanden en contenidos científicos, técnicos o humanísticos que optimicen su preparación para el ejercicio profesional.

- Proporcionar los mejores niveles de conocimiento del euskera a los estudiantes que lo soliciten.

b.2) Profesorado

- Proporcionar, al profesorado que lo solicite, la mejor cualificación lingüística general o de conocimientos específicos en los distintos campos del saber.
- Apoyo para la realización de actividades de formación.

b.3) Personal de administración y servicios

- Proporcionar la mejor cualificación lingüística al personal que la solicite.
- Apoyo para la realización de actividades de formación.
- Proporcionar capacitación lingüística específica en los puestos de trabajo que requieran perfil lingüístico.

c) Actores y acciones

Se recogen a continuación las acciones a desarrollar clasificadas según los colectivos a los que van dirigidas, con soporte en el diagnóstico inicial.

Estudiantes:

eskatzen duten ikasleei, lanbidean aritzeko prestakuntza optimizatuko duten eduki zientifiko, tekniko edo humanistikoetan.

- Euskararen ezagutza-maila onenak ematea hala eskatzen duten ikasleei.

b.2) Irakasleak

- Eskatzen duten irakasleei hizkuntza-gaitasun orokor onena edo ezagutzaren esparru desberdinetako ezagutza berariazkoen hizkuntza-gaitasun onena eskaintzea.
- Prestakuntza-jarduerak egiteko laguntza.

b.3) Administrazio eta zerbitzuetako langileak

- Eskatzen duten langileei hizkuntza-gaitasun onena eskaintzea.
- Prestakuntza-jarduerak egiteko laguntza.
- Hizkuntza-gaitasun berariazkoa eskaintzea hizkuntza-eskakizuna eskatzen duten lanpostuetan.

e) Jarduera-egileak eta jarduerak

Garatu behar diren jarduerak aipatzen dira ondoren. Jarduera hauek egin behar dituzten taldeen arabera daude sailkatuta, eta hasierako diagnostikoan euskarria dute.

Ikasleak:

- Diseño de mecanismos de información sobre cualificación lingüística para estudiantes que permita tener actualizada dicha información.
- Diseño de mecanismos de información sobre demanda real de docencia en euskera en las distintas titulaciones de nuestra Universidad.
- Selección de itinerarios de asignaturas en las diversas titulaciones con demanda, para la adquisición de capacitación lingüística requerida en el mercado laboral.
- Propuestas de asignaturas, cursos, seminarios, transversalidad que permitan al estudiante euskaldun recibir docencia en euskera y le permita el contacto con la lengua.
- En todo caso el tanto por ciento de la oferta de créditos en euskera que se prevea en la planificación a realizar tenderá a corresponderse con el porcentaje de alumnos euskaldunes matriculados en nuestra Universidad y que demanden docencia en euskera.
- Diseño de mecanismos estables (Títulos propios, materias generales o básicas...) de oferta en euskera para aquellos estudiantes que, conociendo el idioma, deseen continuar empleándolo en su proceso de formación superior, o perfeccionarlo.
- Hizkuntza-gaitasunari buruzko informazio-baliabideak diseinatzea ikasleentzat, informazio hori eguneratuta eduki ahal izateko.
- Gure unibertsitateko titulazioetan euskaraz irakasteko dagoen benetako eskariari buruzko informazio-baliabideak diseinatzea.
- ikasteko nahia dagoen titulazioetako irakasgaien ibilbideak aukeratzea, lan merkatuak eskatzen duen hizkuntza-gaitasuna erdiesteko.
- Irakasgaiak, ikastaroak, mintegiak eta zeharkakoak proposatzea, ikasle euskaldunek irakaskuntza euskaraz jaso dezaten eta hizkuntzarekin harremanetan jartzeko.
- Nolanahi ere, egin behar den plangintzan aurreikusitako euskarazko kreditu-eskaintzaren ehunekoak gure Unibertsitatean matrikulatuta dauden eta irakaskuntza euskaraz jasotzea eskatzen duten ikasle euskaldunen ehunekoarekin bat etortzeko joera izango du.
- Euskaraz dagoen eskaintzaren baliabide egonkorak diseinatzea (titulu berekiak, irakasgai orokorrak edo oinarrizkoak...), hizkuntza ezagututa, goi-mailako prestakuntzaren prozesuan hizkuntza erabiltzen jarraitu, edo hobetu nahi duten ikasleentzat.

Profesorado:

Irakasleak:

- Diseño de actividades que permiten a los profesores mejorar su competencia lingüística.
- Diseño de mecanismos de
- Irakasleek beren hizkuntza-gaitasuna hobetu ahal izateko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleek euskaraz irakasteko modurik duten edo ez aipatzen duen informazioa

actualización de la información sobre la disponibilidad docente en euskera del profesorado, para su relación con la información sobre demanda de docencia.

eguneratzeko baliabideak diseinatzea, irakaskuntza euskaraz jasotzeko dagoen eskariari buruzko informazioarekin harremanetan jartzeko.

Personal de Administración y Servicios:

- Diseño de actividades de mejora de su cualificación lingüística.
- Relación de puestos de trabajo del PAS que requieren cualificación lingüística, su actual dotación y circuitos administrativos existentes para canalizar la atención a personas euskaldunes.
- Propuestas de actividades específicas para el personal que ocupa puestos con perfil lingüístico.
- Desarrollo de mecanismos que permitan el uso administrativo del euskera, contando con el apoyo del Servicio de Planificación Lingüística, atendiendo a lo previsto en el Artículo 122 de nuestros Estatutos.

Así mismo, la Universidad, de acuerdo con sus medios e infraestructuras, podrá organizar actividades de extensión universitaria, dirigidas a miembros de la Comunidad Universitaria o público en general, en o sobre euskera.

d) Evaluación y seguimiento

Como toda planificación, la lingüística debe venir referida a acciones de evaluación de resultados, como viene siendo habitual en la Universidad y para

Administrazio eta Zerbitzuetako langileak:

- Beren hizkuntza-gaitasuna hobetzeko jarduerak diseinatzea.
- AZLko lanpostuen zerrenda, hizkuntza-gaitasuna eskatzen dutenena, gaurko dotazioa eta euskaldunei arreta euskaraz emateko dauden administrazio zirkuituak.
- Hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzen dituzten langileentzako jarduera berariazkoak proposatzea.
- Euskara administrazioan erabiltzeko baliabideak garatzea, Hizkuntza Plangintzarako Zerbitzuaren laguntzarekin, gure Estatutuetako 122. artikuluan aurreikusitakoari begira.

Halaber, Unibertsitateak, bere bitarteko eta azpiegiturekin, unibertsitate zabalpeneko jarduerak antolatzen ahalko ditu euskaraz edo euskararen gainean. Jarduera horiek Unibertsitate Komunitateko kideei edo oro har jendeari zuzenduko zaizkie.

d) Ebaluazioa eta jarraipena

Plangintza guztiak bezala, hizkuntza-plangintzak lotura izan behar du emaitzak ebaluatzeko jardurekin, Unibertsitatean ohikoa den bezala, eta

las que se dispone de mecanismos específicos, así como a indicadores y tareas de seguimiento.

zeregin horretarako badira baliabide berariazkoak, bai eta adierazleekin eta jarraipen-lanekin ere.

Las propuestas, requerirán, sin duda, una estrecha colaboración entre la Comisión de Planificación Lingüística, Departamentos, Centros y Servicios y Gerencia de la Universidad. Órganos sobre los que recaen las competencias relativas a organización de docencia, enseñanzas y administración universitaria, sin perjuicio de las que corresponden al Consejo de Gobierno. El Consejo de Dirección tiene el firme propósito de actuar como catalizador de opiniones y esfuerzos en aras a conseguir una planificación real y posible. Porque, como destaca el Consejero de Educación del Gobierno de Navarra, *“la cuestión lingüística es una realidad dinámica en Navarra y saber afrontar el plurilingüismo es un reto que debemos acometer desde el presente, porque nuestra preparación ante los grandes cambios que se están produciendo permitirá conjuntar mejor la riqueza cultural y lingüística de nuestra Comunidad Foral. Y es excelente que así sea, por el bien de todos”*.

Pamplona, 21 de septiembre de 2004

* En la introducción del “Estudio sociolingüístico sobre el vascuence en Navarra. 2003. Competencia lingüística, uso y actitudes”. Gobierno de Navarra.

Unibertsitateko Hizkuntza Plangintzara Batzordearen, sailen, ikastegien, zerbitzuen eta Kudeatzaitzaren arteko elkarlan estua eskatzen dute, zalantzarik gabe, proposamenek. Aipatu organo horiek dituzte unibertsitateko irakaskuntza, ikasketak eta administrazioa antolatzeo eskumenak, Gobernu Kontseiluari dagozkionen kaltetan gabe. Zuzendaritza Taldeak, plangintza benetako eta posible bat lortze aldera, iritziak eta ahaleginak katalizatzeko asmo sendoa du. Izan ere, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza kontseilariak nabarmentzen duen bezala, *“Hizkuntzaren auzia errealitate dinamikoa da Nafarroan, eta eleaniztasunari aurre egiten jakitea oraindantik hasi behar den erronka da, zeren, gertatzen ari diren aldaketa handien aurrean daukagun prestakuntzari esker, gure Foru Erkidegoaren kultura- eta hizkuntza- aberastasuna hobe bateratuko baitira. Eta gauza ezin hobea da hori horrela izatea, guztion onagatik”*.

Iruñean, 2004ko irailaren 21ean

* Liburu honen hitzaurrean: “ Estudio sociolingüístico sobre el vascuence en Navarra. 2003. Competencia lingüística, uso y actitudes”. Nafarroako Gobernu.